

## IDEIA

“Zenith” izeneko zapatila marka bat sortu dugu, horrelako produkturik ez da inoiz merkataratu, zola aldagarria duten kirol zapatilak dira. Zapatila hauek hainbat kirol desberdin egiten dituzten pertsonentzako dago pentsatuta. Kirola egiteko zapatilak oso garestiak dira eta azkar hondatzen ohi dira; gainera kirol desberdinak egiten dituzten pertsonak kirol bakoitzerako hainbat zapatila mota erosi beharra dute eta diru asko gastatzen dute. Arazo hori konpontzeko zola aldakorra duten zapatilak sortu ditugu, zapatila hauen zola aldagarria da eta kirol bakoitzarako zola desberdin bat sortu dugu. Horrela, kirolariek zapatila bakar bat erosi beharko dute eta zola aldatuz hainbat kirol jarduteko gai izango dira hainbeste diru gastatu gabe.

Guri korrika egitea gustatzen zaigu eta egun batean gure taldekide bat korrika egitea atera zen. Bidean mendi baten ondotik pasa zen eta medira buelta bat ematera joateko irrikan zegoen arren ezin izan zuen ez zituelako zapatila aproposak horretarako. Horrela, gure taldekideak pentsatu zuen bere zapatilei zola aldatuta mendia igotzeko gai izango zela eta zola aldakorraren ideia bururatu zitzaion.

Produktu hau lehiakideengandik bereizten duena haien praktikaltasuna eta prezioa dira. Zapatila hauen zolak edozein lekutara eraman daitezke oso arinak direlako; materialak birziklatuak direlako eta airea sartzen uzten duelako (korrika egiterakoan zankada erosoak ematen laguntzen dutelako). Zapatila hauek albo mugimendurik gabe mantentzen dute oina, oinaren erdialdean euskarria zaintzen dute lasterketan alboetako mugimenduak saihesteko eta, batez ere, aurrealdean erosotasuna ematen diote atzamarrei eta babesa eskaintzen dute.